

Udako keinuak

por Jokin Bildarratz



Europar Batasunak inor izan nahi badu gaurko egunean, irteera bateratua aurkitu behar dio etorkinen egoerari. Estatu bakoitzak bere politika eta bere arazo soilak konpondu nahian dabil eta bere errealitatea azaltzen saiatzen da, kolektiboari lekurik eskaini gabe.

Eguneroko lan erritmotik pixka bat aldentzeko izaten ditugun udako oporretarako publizitate iragarkietan, bai aldizkari zein telebista edota bidaia agentzietan, leku paregabeak, tenperatura egokietan gozatzeko ari diren gorputz lirainak ikusten ditugu, paradisuako paisaiak gerturatu nahi dizkigutelako, ametsak errealitate bihurtzen direla helarazi nahian. Horien eraginez, uda idiliko bateko kantak prestatzen saiatzen gara guztiok ilusio handiz: ongi informatzen gara, gidak erosten ditugu... eta hor sumatzen dugu lehen sententzio arrarora, doinuaz ez datorrelako bat erritmoarekin. Aipatutako bidaia liburu horien arabera dena da perfektua, ez dago arazorik inongo lurraldetan eta bakoitzaren ametsa asebetetzeko adina eskaintza dago: atsedean hartu, leku eta istorio harrigarriak ezagutu, kultura eta hizkuntza ezberdinez gozatu eta, ilunabar ikusgarriak ikusi ondoren, ederki lo egiteko aukera eskaintzen digute, amets gaiztorrik gabe noski. Baina sarritan eskaintza horrek ez digu asetzen eta marritatik haratago joateko joera dugu. Orduan, bertaratu aurretik, beste iturri ezberdin batzuetako ura edanez, gure opor lekuen historiaz edo herrialde bezala izan dituzten konfliktuez irakurtzen dugu, etorkizun iluna iragartzen dieten hodei beltzak antzemateko.

